

## Xedapen Orokorrak

### EKONOMIA ETA OGASUN SAILA ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

6104

AGINDUA, 2009ko urriaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko kontratacio-mahaia sortzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratacio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluak xedatzen duenaren arabera Ekonomia eta Ogasun sailburuak eta kasuan kasuko sailburuak batera emandako aginduaren bitartez, kontratacio-mahai bakarra sortuko da sail bakoitzean.

2009ko maiatzaren 9an indarrean jarritako Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak aldatu egin du Jaurlaritzaren egitura eta, ondorioz, eragina izan du lehendik zeuden kontratacio-mahaietan. Hori dela eta, beharrezko da sailen egungo kontratacio-mahaiak indarrean dagoen egitura berriari egokitzea.

Ondorioz, Administrazio Kontratacioaren Aholku Batzordeak egindako txostena jasota, honako hau:

XEDATU DUGU:

**1. artikulua.**— Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko kontratacio-mahaia.

1.— Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Kontratacio Mahaia sortzen da, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egin beharreko kontratazioen gaineko espedientei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratacio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. artikuluan jasotako egitekoak burutu ditzan, 5. artikuluan zehaztutako jardute-eremuan.

2.— Kontratacio Mahaia kide hauek osatuko dute (ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6. artikulua):

Lehendakaria: Garraio eta Herri Laneko sailburuordea.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRA PÚBLICAS Y TRANSPORTES

6104

ORDEN de 23 de octubre de 2009, del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco dispone, en su artículo 4, que en cada departamento se creará por Orden conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento correspondiente, una única Mesa de Contratación.

La entrada en vigor el pasado día 9 de mayo de 2009 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de los mismos, ha venido a modificar la estructuración departamental con la consiguiente incidencia en las Mesas de Contratación existentes, lo que requiere que se proceda a una adecuación de las actuales Mesas de Contratación departamentales a la nueva estructura vigente a partir de esa fecha.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

**Artículo 1.**— Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

1.— Adscrita a la Dirección de Servicios se crea la Mesa de Contratación del Departamento de Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 respectivamente del Decreto 136/1996, de 5 de junio, en relación con los expedientes cuya contratación corresponde al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

2.— La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes Miembros (artículo 6 del Decreto 136/1996, de 5 de junio):

Presidente o Presidenta: el Viceconsejero o Viceconsejera de Transportes y Obras Públicas.

Mahaikideak:

- Kontratua bultzatu duen Zuzendaritzaren ordezkari izango den teknikari bat.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat.
- Ondare eta Kontratacio Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, zuzendariak izendatutakoa, ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.3 eta 6.5 artikuluetan zehaztutako kasu eta erregimenarekin bat etorri.

Idazkaria: Zerbitzu Zuzendaritzara atxikitako teknikari bat, Zuzenbidean lizentziatua dena, Mahaiko idazkari eta lege-aholkulari lanak betetzeko. Idazkari lan hori kontratacio arloaren arduradunak beteko du, aipatutako baldintzak betetzen baditu behintzat.

**2. artikulua.**— Ordezkapenen araubidea.

Kontratacio-mahaiko lehendakaria kanpoan, lanpostua hutsik edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Zerbitzu zuzendariak ordezkoa izendatuko du bere Zuzendaritzako ekonomia eta aurrekontuen kudeaketaren edo lege-zerbitzuaren arlora atxikitako langileen artekik. Idazkaria kanpoan bada, Zuzenbidean lizentziatua eta Zerbitzu Zuzendaritzara atxikita dagoen langile batek ordezkatuko du.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluaren 2. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, Agindu honetan berariaz egiten ez diren izendapenak eta aurreikusten ez diren ordezkapenak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak erabakiko ditu. Izendatutako pertsonen artean ahalik eta alternantzia gutxien egon dadin saiatuko da, eta izendapenek espedientean agertu beharko dute.

**3. artikulua.**— Agindu honen bidez sortzen den kontratacio-mahaik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardunarloan finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren eta Dekretu hori aldatzeko uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuaren bidez egungo Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari, esleitu zaizkion eskumenen esparruko egitekoak burutzeko lehen sortutako kontratacio-maiak oro ordezten du.

Vocales:

- Un o una técnico en representación de la Dirección departamental impulsora del contrato.
- Un o una representante de la Oficina de Control Económico.
- Un o una representante de la Dirección de Patrimonio y Contratación.
- Un o una representante de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, designado por su Director en los supuestos y conforme al régimen previsto en los apartados 3 y 5 del artículo 6 del Decreto 136/1996, de 5 de junio.

Secretario o secretaria-vocal asesor o asesora jurídica: un o una técnico con título de licenciado en derecho adscrito a la Dirección de Servicios, que ejercerá las funciones de asesoramiento jurídico y de secretario o secretaria de la Mesa con voz y voto. Esta persona será el o la responsable del área de contratación siempre que reúna las citadas condiciones.

**Artículo 2.**— Régimen de sustituciones.

En caso de ausencia, vacante u otra causa legal, del o de la titular de la Presidencia de la Mesa corresponderá a la Directora o Director de Servicios el nombramiento del suplente de entre el personal adscrito a su Dirección en el área de gestión económico-presupuestaria o en el servicio jurídico. En el caso de ausencia del o de la titular vocal-secretario será sustituido por personal licenciado en Derecho adscrito a la Dirección de Servicios del Departamento.

Conforme a lo dispuesto en el segundo párrafo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por el Consejero de Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Dichas asignaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

**Artículo 3.**— La Mesa de contratación que se crea por la presente Orden sustituye a cualesquiera otras creadas con anterioridad para ejercer sus funciones en el ámbito de las competencias asignadas al actual Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en virtud del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari y del Decreto 20/2009, de 30 de julio, de modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 23a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Etxebitzta, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2009.

El Consejero de Economía y Hacienda,  
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.